



Laixan

Antxiñako fotografixia



Txantxikuarrak Naparruan

Aspaldittik dakoi oñatiarrak Naparruarako joeria. Izan be, nahikua hurrian dago gure herritik erreñu zaharra; oiñez fateko moduan, ibiltari on samarra izan ezker behintzat. Urtero egitten dau Oñatittik Lizarrarakua tipi-tapa, egun batian, gure herriko mendizale-talde batek. Lehenago Ameskuetatik be etorten ziran ikazkin naparrak Arantzazuko basuetara txondorgintzara.

Dana dala, Naparrua aldera fateko beste egun seiñalau batzuk, oraintxe letxe, **San Fermiñak** izaten ziran. Gaur beste auto ez eguenian be, moldaitten ziran batzuk, autobusian edo trenian, Iruñako jaixetara aillegaitteko. Fotografixa honetan ikusten dittugun oñatiarrak, beste hainbat herritarrekin batera, 1964ko garagarillaren 13an hurreratu ziran Naparruako hiriburura, goizian goiz, entzierrua ikustera; gero **Orreaga-Roncesvalleseko** kolegiata-eliza ederra bixittau euen; bazkaitteko lekua **Auritze-Burgeteko** ostatu batian topau euen; bazkalostian Pamplonara bueltau ziran arratsaldeko korridara; eta, bidetan afaldu eta gero, gabardi inguruan heldu ziran etxera. Beste urte batzuetan be egin ei euen antzerako eskursiñua.

Ezkerretik eskumara honeitxek dittuzue urte haretako espediziñoko batzuk: **Julian Igartua**, Kale Zaharrekoa, igeltserua eta kontratistia; **Manolo Alvarez**, *Galicía*-neko tabernarixa; X. X., Ugaztegikua (?); **Gregorio Guridi**, *Torre*, Kale Barriko tabernarixa; **Martzeliño Astiazaran**, *Txaketua*, tabernarixa; **Alberto Altuna**, Atzeko kalekoa, enpresa-gizona; **Rodrigo Mugartza**, *Patri*, Kale Zaharreko kamazerua; **Kandido Letamendi**, plazako dendarixa; **Kruz Korkostegi**, Atzeko kaleko arotza; eta **Migel Enparantza**, *Usako*, enpresa-gizona.

Argazkixa Jose Luis Plazaolak atara eben Auritze-Burgeteko parrokiaren atari aurrian.

J. E.

Alberto Altunak eskuratu dosku fotografixia eta argibidiak. Milla esker!